

# Aurpegi berriak Jai Batzordean

Hilaren 11tik 13ra bitartean Martutene festetan izango dugu. Aurreko urteetakoak baino laburragoak izango aurtengo festak, baina, jaien atarian, Jai Batzordeko kideak gogotsu dabilta.

Duela zenbait urte, festak kinka larrian zeudela, auzoko neska koadrila batek lekukoa hartu zuen auzo elkartearen. Neska haiek beste auzotar batzuk izan zituzten laguntzaile: Isa eta Pamela Silguero ahizpak, Eneka Ezkerra, Itziar Cano, Marivi Garcia, Naiara Urío eta Nora Illarreta. Aurten azkeneko hauek hartu dute beren gain festen antolaketa. Jai Batzordeko kideek lan asko egin dute, baina hala ere, gogotsu dabilta. Festak arrakastuak izatea espero dute.

Isa Silguerok dioenez, ekitaldirik aipagarriena larunbat eguerdiko sagardo eta baserri produktu dastaketa izango da. Aurreko urteetan ere jai ekitaldi honek arrakasta izan du. "Ekitaldi jendetsua izaten da eta sagardogileak eta baserri-tarrak gustura etortzen dira. Gainera, ia bezala, aurten ere sagardoa ondoen botatzen

duen sagardogileari sari bat emango diogu", azaldu digu Silguerok. Gauzez egin ohi diren ekitaldiek ere jende asko erakartzen dutela nabarmendu digu batzorkideak. Ostiralean, Eneka taldea ariko da, gazteen gozamenerako, eta larunbatean, aldiz, helduek dantza egin dezaten, Kresala orkestra. Dena dela, "adin guztietako jendea elkartuko da batean eta bestean", dio Isak.

Donostiako beste hainbat jai batzordek, eguraldia lagun izateko, otoitz egin behar izaten dute. Isak eta bere koadrilakoek ez dute horrelako kezkarik. Izan ere, duela zenbait urtetatik hona ekitaldi gehienak parkean jarritako karpan egiten dituzte. "Hortaz, aldez aurretik badakigu, eguraldi txarra izan arren, sagardoa dastatu edota dantzan aritu nahi dutenek ez digutela hutsik egingo" esan digu Isak.

## Zenbait berrikuntza

Ekitaldietan azken urteetako ildoari jarraitu zaion arren, Jai Batzordekoek zenbait berrikuntza egin dituzte. Eskola taldeak euskal dantza erakustaldia eskainiko du eta Gurma musika taldea ere ariko da. Isak aipatu digunez, "Gurma taldea Martuteneko eta Astigarragako gazte talde batek

**Ekitaldi nagusiak karpan egingo dira**

osatuta dago, eta lehen urratsak ematen ari dira. Euskal Kantu Lehiaketa irabazi dut. Beraz, martutenean bertan, aukera bikaina izango da zuzenean ikusteko".



Isa Silguero Jai Batzordean dabil aurten buru-belarri.

**MARCOS**



**Okindegia eta etxeko gozoak**

Ubarburu P, 4-5 pabiloiak • 27 Industrialdea  
- Tel: (943) 45 09 66 • ASTIGARRAGA

**ALKUBI**  
Kotxearen boutique  
Tel: 943 463 210  
Faxa: 943 459 758  
Mugil: 607 825 392  
Martutene pasealekua 75  
Donostia 20014  
[www.alkubi.com](http://www.alkubi.com)

**TXOFRE**  
SUMINISTROS INDUSTRIALES, S.A.L.

- Berezitasuna: torlojugintza herdoilezina
- Tresneria
- Banatzaileak: Gayner - Hitachi - Super Ego

Biltegia eta bulegoak: Ubarburu pasealekua 9 - 27. poligonoa 20014 DONOSTIA  
Tel.: (943) 466394 eta (943) 462374 Faxa: (943) 464521

## Martutene

### Egitaraua

Ostirala 11

16:30 Aroazki Rallya

17:00 Kiko, Moko eta Flash pila-  
zoen emanaldia parkean

19:30 Jaien hasiera suzina-  
rekin eta Pabxaranga txarangarekin

20:30 Koadrilien patoia

22:00 Gurma taldearen kantu  
emanaldia

23:30 Etzakit taldearen kontzertua

Larunbata 12

09:00 Diana

10:00 XI. Herri Kroza

11:00 Haur parkea Ikastolan

12:00 Hildako auzotarren ome-  
hezko meza Andra Maria Pilare  
koaren auzunean. Bakallao leña-  
keta

12:30 Sagardotegi berriko pro-  
dukto azoka

16:30 VIII Txapelketa Songintxu-  
lo txokotan. XIII. Toka Txapelketa  
Mikel Tabernan

18:30 Gaztelekutak antolatutako

grafiti lehiaketa 12 eta 18 bitarte  
ko neska mutilentzat. Skate eta  
roller lehiaketa

19:00 Nafarroako Jotak Aupa Na-  
varra taldearekin

23:30 Kresala orkestraren ema-  
naldia. Ondoren, zezen mekanikoa

**Igandea 13**

**Haurren Eguna**

09:00 Diana

10:00 Txokolatu eta bizkotxo ja-  
tea. Dik-Dik malabaristak alaituta  
Burosoi lehiaketa. Txoko Berrita  
bernak antolatuta

11:00 Haur jolasak ikastolan

11:30 Gomifren agerraldia

12:00 Pintxo-jana zahar etxean


13:00 Herri Batolak parkean

17:30 Eskola taldearen euskal  
dantza emanaldia

19:30 Bardiandak

20:30 Sardin jatear parkean Paba-  
xaranga txarangarekin

23:00 Jaien ramalera



**ARANTZUKO AMA  
IKASTOLA**

ASTIGARRAGA - ERGOBIA - LOIOLA ETA MARTUTENE

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza

*Jaietan ere zuekin.  
Ondo pasa!*

# LIZEAGA

Tolare Sagardotegia

Edan eta eman edatera!!

**Gartziategi baserria**

**ASTIGARRAGA**

Tel.: (943) 468290

# URRIAK

## 11 12 13



**ALAI**  
taberna

**Auzoa  
agurtzen du**

GOIZEKO  
6-ETATIK  
ZABALIK

Z  
O  
R  
I  
O  
N  
A  
K

Tranbia kalea, 33. MARTUTENE  
Tel.: 943 46 88 61

**AINHOA**  
Taberna

Pintxoak  
eta  
kaxuelitak

Sarroeta kalea 90,  
MARTUTENE